
EKIALDE HURBILA

MUINAK ETA ERTZAK

MIKEL AYESTARAN
ANE IRAZABAL
KARLOS ZURUTUZA

Koordinatzailea: Kristina Berasain Tristan

aleka **⇒⇒⇒**

MAPA BATI BEGIRA

Zibilizazio zahar baten azken *faraoia* diktadore bihurtu zenean ezagutu zuen Alaa al-Aswanik *herria* hitzaren benetako esanahia. Kairo munduko epizentroa zen egun horietan, eta idazlea egunero-egunero joaten zen erresistentziaren ikur bihurtu zen plazara. Tahirren milaka eta milaka lagun elkartu aurretik ere, erregimenaren aurrean isildu ez ziren ahots bakanetakoa izan zen harena, eta, orduan ere, “errezeloak” zituen iraultzaren “mirariaren” ostean etorriko zenarekin. Urteek erakutsi dute ez zegoela oker; 2011ko matxinadek astindutako ia arabiar herrialde guztiak orduan baino okerrago daude orain. Al-Aswani diktaduraz mintzo da berriz ere: “Hosni Mubaraken garaian baino makurragoa da egoera”.

Udaberri Arabiarrek munduko egunkarietako azaletara eraman zituzten hainbat herrialde, ordura arte oharkabean igaroak zirenak. Itxaropena lehertu egin zen, plazaz plaza, herriz herri, mugak zeharkatuz, eta mapetara begira jarri ginen. Bazirudien Ekialde Hurbil Handian, mendebaldetik ekialdera, bata bestearen atzetik, banan-banan, sistema zaharren eremu mortuan udaberria loratuko zela, baina indarkeriak demokraziak baino azkarra go egin du aurrera, eta eremu antzu bihurtu da berriz ere eremu hura; negu gorria, negu beltza. Antzinako ordena itzuli da, urteetako sistema zapaltzaileak ezin baitira egun batetik bestera irauli. Gilbert Achcar idazle libanoarrak horrela laburbildu du: “Trantsizio demokratikoa ez da udaberri bateko kontua”. Bada, matxinadaren narratiba erromantikoa bukatu da; lorea zimeldu

egin da, ametsa amesgaizto bihurtu da, utopia distopia, iraultza kontrairaultza.

Tunisian piztu eta eskualdean zehar zabalduriko matxinadek argazki latz bat utzi dute atzean: huts egindako estatuak, errepre-sioa, anabasa, estatu kolpeak, gerrak, hilketak... Achcarren hitze-tara itzulita, oso prozesu luzea izango da erregimen zaharraren heriotza eta berriaren jaiotza, baina idazlea, udaberrri hartan sor-tu zen euforiaren aurka agertu zen bezala, orain nagusi den pesi-mismoaren kontra dago. Ekialde Hurbilean “muturreko aldaketa bat” behar dela dio, baina argi dauka askatasun politikoaren eta justizia sozialaren izenean altxatu zen herria izan badela, eta pla-zetara eraman zituzten arrazoi guztiak, politikoak, ekonomikoak, sozialak, endemikoak asko eta asko, bere horretan direla.

Baina zeintzuk izan ziren arrazoi horiek? Zein testuingurutan piztu ziren iraultzak? Zer gertatu zen aldi berean eta eremu be-rean bata bestearen ondoren kateatzeko? Zein da herrialde horien gaur egungo argazkia? Zerk baldintzatu du, herrialde bakoitza-ren berariazko ezaugarrietatik haratago, iraultza kontrairaultza bihurtzea?

Galdera horiei erantzutera dator liburu hau. Ekialde Hurbila esaten dioten eremu zabal bezain liluragarria eta konplexua nola dagoen begiratzera, gatazken muina azaltzera, jatorriei eta on-dorioei erreparatzera, eta, gatazkek sakonean ertz asko dituzten heinean, hegi horiei ere so egitera, baita mapetan zuzen-zuzen marraztutako mugetatik at ere. Muinak eta ertzak. Geopolitikoak eta geografikoak.

Mapara begira jarriko gara berriro. Eta, horretarako, mapa hori etengabe zapaldu duten hiru euskal kazetari apartengana jo dugu. Bakoitzarekin bide bat egingo dugu, zeharkaldi bat, bertatik bertara, eta, kazetaritza eredugarrian, kontakizunekin eta lekukotasunekin, ñabardurez osatutako argazki bat atera dute, kaleidoskopio batetik bezala begira dezagun, dena ez baita zuria ala beltza.

Mikel Ayestaran Iranen, Iraken eta Sirian izan da azken urteotan, behin eta berriz, eta korapiloz betetako mataza harilkatuz joan da atalez atal eta lerroz lerro. Herrialde arabiarren arteko harremanak ahulak direla dio kazetariak, eta, suniten eta xiiten arteko betiko borroka gutxi ez, eta suniten arteko lehia ere zabaldu dela. Haren hitzetan, kanpotik ikusita, denek denen kontra diharduten gerra dirudi, baina ez da horrela: “Hil edo biziko gerra da, zu edo ni”.

Irango 2009ko Iraultza Berdea jarri du eremu hura astindu zuen mugimenduaren abiapuntuan. Baina, denboran atzerago ere egin du testuingurua bera ere ulertzeko. Iraken asmatutako gerra gakoa da, haren ustez, ondorena ulertzeko. Washingtonek herrialdea suntsitu eta sekten arteko harremana apurtu zuela dio Ayestaranek: “Ezin da gaurko Irak ulertu 2003ko inbasioari begiratu gabe. [...] Bagdaden, Tigris ertzean, zimeldu egin da nargilea erretzeko zeuden tabernen xarma, eta hiri zaharreko merkatuek zuten alaitasuna bonba-autoz bonba-auto desagertu da. Inbasioak Ekialde Hurbileko hiriek duten mamia lapurtu zuen, eta hiriak kaiola itxura hartu du”.

Sirian, berriz, urtebeteko altxamenduaren ostean, iraultza gerra bilakatu zen, eta gerra hasi eta zazpi urte pasatu diren honetan, mundu gerra txiki bat bihurtu da, etengabeko mutazioekin, fronte ugariekin, inork espero ez zuen ondorio batekin: “Al-Assad indartu egin da, oposizioa mila zatitan apurtu baita”.

Munstro bat ere agertu da: Estatu Islamikoa. “Ekialde Hurbileko bihotzetik bere muturreko ideologia mundu zabalera hedatzeko asmoz”. Irakeko Mosul hiria konkistatu ondoren, kalifa herria aldarrikatu zuen 2014ko ekainean. Siriako Raqqa hiria izan da, ordea, haren zentro politiko eta estrategiko nagusia. Muturreko talde islamista sunitaren menpeko eremua, alabaina, gero eta estuagoa da: Mosuldik kanporatuta eta Raqqan zokoratuta baitago. Haren etsaiak, berriz, geografikoki gero eta hurbilago daude. Ayestaranen ustez, irabazlerik gabeko beste gerra

bat da, eta, beste askotan bezala, biktima nagusiak, beste behin, zibilak dira.

Palestinan bezala. Israelek Palestina historikoa okupatu zuela 50 urte bete berri dira, eta gerra haren ondorioak gaur egungo okupazioak ezarritako *statu quo*-an islatzen dira: “Zisjordaniako okupazioak ez du etenik, eta Jerusalem, berriz, anexionatu egin du estatu juduak”.

Ane Irazabalen kontakizuna iraultza ofizialki piztu zen herrialdean hasten da. Tunisia salbuespen bat da iraultza ezagutu zuten herrialdeen artean, eta, demokraziaren alde borrokatzen jarraitzen duen bakarra dela dio kazetariak: “Islamismo demokratikoaren ereduak da; mundu arabiarreko demokraziaren laborategia”. Udaberri Arabiarretatik eratorritako eredu arrakastatsu bakar horren ezaugarriak aletu ditu Irazabalek: “Iraultzak ekarri dituen pozak eta tristurak, garaipenak eta porrotak, eta, batez ere, kontraesanak”. Ezen, matxinaden sinboloa den herrialdeak, beste guztiek baino jihadistak gehiago esportatu baititu Siriara.

Tunisiatik Egiptora egin zuen salto iraultzak, eta bi herrialde horiek bi eredu kontrajarri islatzen dituztela azaltzen du Irazabalek: “Egipton egun batetik bestera, eta ia konturatu gabe, beste erregimen militar batera itzuli ziren, aurrekoa baino askoz krudelagoa”. Niloko eskualdea zulo beltzean sartuta dagoela dio: “Armadaren errepresioak askatasunaren espiritua hil du”.

Karlos Zurutuzaren eskutik egingo dugu bidaiaren azken txanpa. Ertz geografikoetatik arituko da kazetaria liburuaren azken atalean, ahaztutako eta isilarazitako herrien begiradatik, agerian utziz, asmatutako kontzeptu hori, *iraultza arabiarrek*, ez zirela bakarrik arabiarrek izan, beste herrien borroka ere izan bazela. Kazetariak dioenez, kurduena da ezagutu duen benetako iraultza bakarra. “2012ko udan, Siriako kurduak euren eskualdearen jabe bilakatu ziren; ez zen tiro hotsik entzun, baina abian zen iraultza isila bezain sakona. ‘Hirugarren bidea’ deitu zioten: ez gobernuarekin, ez eta oposizio armatuarekin ere”. Estatu Islamikoaren kontrako borrokan giltzarri izan da estaturik

gabeko herri handiena dena, eta kazetariaren hitzetan, hogeita hamar urte borrokan eman arren, orain deskubritu ditu munduak gerlari horiek. Damaskorentzat urteetan ez ziren existitu ere egin, baina, orain, iraultzen abaroan, autogobernu demokratiko bat eratu dute Rojavan. Abdullah Ocalanen proiektu politikoa, beraz, hezurramitzen ari da. Eta Siria osorako eredia izan daiteke.

Libiako amazigek ere autogobernuari eutsi diotela dio kazetariak: “Bereari eutsi diote, hizkuntza eta herria ere badirela aldarrikatzeari”. Nafusako mendikatean bizi dira amazigak, eta eskualde horretan aldatu zen, hirugarren frontean, kazetariak iragarri bezala, gerraren norabidea: “Tripolira iristeko pasabidea izan zen”. Muammar Gaddafi erori ostean ere, herrialdean anabasa da nagusi, azken batean, huts egindako estatu bat da, hiru gobernu baditu ere.

Mendebaldeko Sahara bukaerarako utzi du kazetariak, zirku-lua itxiz, iraultzak berez han abiatu zirela dioten ahotsei lekua emanaz. Noam Chomskyk berak babestu zuen teoria hori. “Egia izan ala ez”, dio kazetariak, “Gdeim Izikekoa erabateko desafioa izan zen, protesta eta manifestazio oro debekatuta dauden eskualdean”. Marokok indarkeriaz eraitsitako kanpamentu hura ere zeharo ahaztuta dagoen herri bat eraman zuen tituluetara. 40 urte luzez borrokan daraman herriaren erradiografia ere egin du Zurutuzak.

Ekialde Hurbileko mugak marraztu eta ehun urtera gerturatu gara egun guztiz txikituta dagoen eremu hartara. Europako potentziek hango herriak kontuan hartu gabe inposatu zuten mapa geopolitikoak, eta orain zauriz beteta dago, puskatan zatituta, gero eta pieza txikiagoetan, puzzle batean bezala. Banaketa artifizial horren arrakalak gero eta handiagoak dira. Mugak ere gero eta lausoagoak dira. Robin Wright adituak *The New York Times* egunkarian galdetu zuen bezala, mapa berri bat sortuko al da?

Kristina Berasain Tristan
Berria-ko kazetaria